

**EUROPAKO ESKUALDEEN TALDEAREN (RLEG-AREN) BILERA
REUNIÓN DEL GRUPO DE REGIONES EUROPEAS (RLEG)
PARTNERS REGIONS FOR THE FUTURE OF EUROPE**

2021-05-07 Vitoria-Gasteiz 07-05-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egun on,

Igande honetan Europaren Eguna ospatuko dugu eta "Schuman Adierazpena" oroituko dugu.

Adierazpen hori inspiratu zuten balioak aldarrikatzen ditugu, Europako herrien arteko aurrerabiderako eta elkarbizitzarako oinarri gisa; baita mundu globalean lankidetzeta eta bizikidetzarako ere.

Igande honetan irekiko den "Europaren Etorbizunari buruzko Biltzarrera" zuzendutako proposamen bat partekatzen dugu gaur; gizarte zibilak etorkizuneko Europar Batasunaren eraketan parte har dezan.

Biltzar horren hasiera dela eta, RLEG plataforman elkartu garen hainbat Gobernuak "Eskumen legegileak dituzten Eskualdeen Gutuna" igorri dugu astelehen honetan. "RLEG Adierazpen Gutuna" Biltzarraren lehendakariak bateratuari helarazi diogu: von der Leyen, Michel eta Sassoli presidenteei; eta Kontseiluko txandakako presidenteari, Costa jaunari.

Guztira 14 presidentek sinatu dugu "RLEG Gutuna". Bokazio europarra egiaztatua duten Eskualde, Herri edo Nazioen ekarpena da adierazpen gutun hori; Europa oinarritik integratzeko eta eraikitzeko prozesuarekin konprometituta gaude.

Eskualde hauek aro gara parte hartzen ekimen honetan: Alaand, Azoreak, Balear Uharteek, Carinthia, Katalunia, Flandria, Lower Austria, Salzburg, Tirol, Upper Austria, Valentzia, Voralberg, Korsika eta Euskadik. Azken orduetan Piamonte ere gehitu zaigu. Printzipio, diagnostiko eta eskaera partekatu batzuen inguruan elkartu gara.

Las y los firmantes de la “Carta RLEG”, consideramos que la Unión es mucho más que un club de Estados Miembros. El contexto actual de pandemia evidencia que las políticas transformadoras son esenciales. En este sentido, las Regiones con competencias legislativas somos esenciales a la hora de legitimar la toma de decisiones y comprometer los procesos de participación y transformación política.

Constatamos que el camino de la Unión Europea se desliza hacia la centralización. Es el camino más simple, pero no contribuye a la “transformación institucional desde la participación” que propugnamos para la Unión Europea. De hecho, la centralización está poniendo en entredicho la coherencia de nuestro orden constitucional interno, la legitimación social de las políticas y la propia eficacia de las medidas adoptadas.

La “Carta RLEG” exige una efectiva gobernanza multinivel en la Unión ofreciendo, corresponsabilidad en el proceso de integración. De esta manera, se puede garantizar la aplicación precisa de la dimensión descentralizada de los principios de subsidiariedad y proporcionalidad, principios fundamentales de nuestro proyecto europeo.

En concreto, solicitamos a la Presidencia de esta Conferencia formar parte de su órgano plenario y participar en el seguimiento de sus resultados. Solicitamos, asimismo, la organización un “Encuentro de Alto nivel sobre gobernanza multinivel efectiva” para analizar la viabilidad de un nuevo marco institucional. Un marco en el que las Regiones con competencias legislativas aspiramos a contar con un Estatuto singular y único de “Región partner de la Unión Europea”.

Proposamen hori bat dator Europar Batasunaren sorrera-printzipioekin. Proposamenak Alain Lamassoure jaunak; zorrotasunez, ausardiaz eta konpromisoz; 2003-ko Konbentzioan aurkeztu zuen proiektuaren ondarea jasotzen du.

Eskumen legegileak ditugun eskualdeon zeregina ez da amaitu oraindik, eta Europar Batasunaren proiektuan gure bidea aurkitzeko ahaleginean ari gara. Europako erakunde-arkitekturaren parte gara, eta herritarrengandik hurbilen dauden errealitateen ezagutza eta konpromisoa eskaintzen dugu.

Amaitzera noa.

Gizakiaren duintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako Europaren sorrerako balioak aldarrikatzen ditugu, beti ere integrazioarako zutabe gisa.

"RLEG Adierazpen Gutuna" jarri dugu mahai gainean, nahi dugun Europa berriari laguntzeko: behetik gora eraikia, parte-hartzailea, anitza, irekia eta batua izan dadin Europa. Datozen hilabeteetan, atzeraezina den hausnarketa sustatuko dugu, eta ekimen honen inguruko borondateak eta atxikimenduak elkartzen jarraituko dugu.

Eskertzen dugu ekimen honetan izan duzuen arreta eta parte hartzea.

Ondoren, Marian Elorza Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak parte hartuko du. Marian, zurea da hitza.

Eskerrik asko!